

Hazitegik bi liburu argitaratu ditu haurraren ongizateaz

2011/10/24

Liburu bien egileak izan dira **Alex Barandiaran**, **Elena Lopez de Arana** eta **Iñaki Larrea** irakasleak. Kolaboratzaileak, berriz, **Pello Añorga**, **Joserra Vitoria** eta **Alex Muela**. Ilustrazioak, azkenik, **Yera Sanchezek** egin ditu. Denak ere Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko kideak.

Lehenengo liburuari dagokionez, hasten da eremu kontzeptuala azaltzen, taldearen nondik norakoa argituz. Horretarako, Jokabidearen Psikologiari, Etologia eta Atxikimenduaren Teoria erkatzen dituzte.

Bigarren liburuari dagokionez, orain arte gure herrian egin ez den proposamena plazaratzen da, hain zuzen, proiektu pedagogikoarekin bat datorren espazioaren eraikuntza. Liburuaren egileek, aipatutako oinarri psikopedagogikoak aintzat harturik, hezkuntzan aplikatzeko proposamenak egin dituzte.

Hazitegi

Hazitegi taldea 2001an sortu zen Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Orduan, haur hezkuntzaren inguruko hausnarketa eginda, 0-3 zikloa garatu gabe zegoela ondorioztatu eta erabaki zen proiektu bat abiaraztea, Hazitegi, bultzatzeko haur hezkuntzaren inguruko hausnarketa. Bere helburuetako bat izan da landutako jakintza zabaltzea, lehenik ikasleen artean eta ostean haur hezkuntzako irakasleen artean, aholkularitza eta formazio bidez.

